



## IKATZ-KARRIUAN

**I**kazkin-lanak, orain noizian behin bakarrik eta erakusketa moduan ikusi arren, oñatiarren artian oso zeregin ezagunak izan ziran historixan zihar. Batetik, baso ugari eguen Oñatin: **ikatza** egittek premiñazkuak diran pagaduiak batez be. Bestetik, egur-ikatza gastaiten euen lantegixak herrixan bertan zihar-duten burdifiagintzan: hiru **ola** nagusi Bidaurrreta, Olalde eta Zubillagan, eta dozenaka **sutegi** eta **errementeri** txiki kalian nahiz auzuetan sakabanatuta. Famauek ziran, bestiak beste, Oñatiko sartaiñagiñak eta ultzeñagiñak.

Hainbeste sari jaten emuteko, hamaitzko **txondar** ixiotu zan gure mendixetan. Izan be, urrin barik eta erruz geukan erregeixa sortzeko lehengeixa: paguaren su-egurra. Horregatik, ikazkin-ofiziuak indardar haundixa hartu euen Oñati aldeko parajetan: Aloña-azpi, Arantzazu, Artixa eta Aratzeko baso eta txaratan ez ezik, Aurrekomendi eta Zubillagakuetan be bai. Orain dala berrogeita bat urtera arte iraun eben langintza honek gure artian; eta bertako langilliak gutxiketan hasi ziranian, Ameskue-tako naparrak jarraitu ei otzain urte batzuetan ikazkintzaiari Arantzazu aldian.

Baiña ikatza txondar-zulotik etxe edo fabriketara karriau be egin bihar izaten zan. Eta horretarako egozen **karreteruak**. Kamioiak agertu arte, honeitxek izaten ziran inguru honeittako transportistak. Gaiñera, baso-lanetan, pistak moldau arte iraun euen karreteruak. **Burdixetan** eruaten zittuain euren kargak, pixu astun edo buelosuetarako **bolante** izeneko burdi haundixaguak ebaliz. Zeregin horreitarako idixak izaten ziran tiratzaillereik onenak eta, terrenua aldapatsua baldin bazan, beste idi-pare edo behi-pare bat eransten xaten aurretik.

Fotografixa zahar honetan ikusi geinke karretero horreittako bat ikatz-karriuan. Parajiak Arantzazuko kamiñua dala emuten dau, Akuegi eta Kortakogain artian daguen bide-zatixa akaso. Burdixa majo kargauta dator ikatz-sakuz. Atzetik beste ganadupare bat somau leike, baiña aldats-beheria dalako itxuria, idixai erantsi barik dagoz. Karreteruaren izena be jakin dogu: **Joakin Egaña Igartua** (1869-1944), Garibai auzoko **Dolaetxe** baserriko semia. Nora ete daroia kargiori? Inguruko fabrikaren batera edota, urriñagorakua dalako, Brinkolako tren-estaziñora? Argazkixa gerra aurekua dogu, duda barik, 1920-1925 bittartekua biharbada.

J. E.

Argazkixa Kaximira Irarretak itxittakua da eta Dolores Egañari zor xaugu argibide batzuk.



Bidebarrieta, 7-behea  
Tfnoa.-Faxa: 943 78 19 48  
20560 OÑATI (Gipuzkoa)

- Erropa jasoteko puntu berri bat:  
**Arantxa Mertzeria: San Lorentzo, 5**  
Tfnoa.: 943 78 13 90
- **Astelehena, asteazken eta ostiraletan jaso eta entregatuko da erropa.**